

Erabiltzailearen eskuliburua

Aurkibidea

1. Orrialdearen estruktura	2
1.1. Goiburua.....	2
1.2. Gorputza.....	2
1.3. Oina	2
2. Orrialdeak.....	3
2.1. Hasiera.....	3
2.2. Bilatu	4
2.3. Guri buruz.....	6
2.4. Erabiltzailea	7

Irudien zerrenda

Irudia 1 aplikazioaren goiburua.....	2
Irudia 2 aplikazioaren oina	2
Irudia 3 hasierako banner-a	3
Irudia 4 enpresaren zerbitzuak	3
Irudia 5 ibilgailuen zerrenda.....	4
Irudia 6 aplikazioaren iragazkia	4
Irudia 7 ibilgailu baten zehaztasunak.....	5
Irudia 8 kontaktuan jartzeko eta finantzazioa kalkulatzeko formularioak.....	6
Irudia 9 xedea aurkitzeko mapa	6
Irudia 10 enpresaren informazioa.....	7
Irudia 11 erabiltzailea izena ema aurretik.....	7
Irudia 12 erabiltzailea izena eman eta gero	7

1. Orrialdearen estruktura

Orrialde bakoitza hiru zatitan dago banatua: goiburua, gorputza eta oina. Atal bakoitzak erabilera ezberdinak edukiko ditu.

1.1. Goiburua

Atal hau beste bi azpiataletan banatzen da 1. irudian ikusten den moduan: enpresaren ikurra eta nabigazio panela. Enpresaren ikurra sakatzen bada, hasierako orrira eramango gaitu. Nabigazio panela ordea orrialde ezberdinen artean mugitzeko erailiko da. Atal hau orrialdearen goiko aldean egongo da.



Irudia 1 aplikazioaren goiburua

1.2. Gorputza

Hemen informazio gehiena ikusten da. Orrialdearen arabera, enpresaren informazioa, ibilgailuen zerrenda, hauen informazio zehatza, erabiltzailearen orria eta bertan izena emanda badago, gogokoen zerrenda, enpresaren helbidea Google Maps teknologiarekin... ikusi daiteke.

1.3. Oina

Atal hau orrialdearen beko aldean dago eta enpresaren izena agertzen da. Bertan aplikazioa hizkuntzaz aldatzeko aukera dago *EUS* euskararentzako eta *ES* gaztelaniarentzako 2. irudian ikusten den moduan.




Irudia 2 aplikazioaren oina

2. Orrialdeak

2.1. Hasiera

Orrialde honetan lehenik eta behin *banner* bat ikusten da 3. irudikoa bezalakoa. Bertan argazkiak automatikoki pasatzen dira eta eskuz egin nahi bada teklatuko geziak erabiliz egin beharra dago. Banner-eko botoiren bat sakatzen bada orrialdeko elementuak bistaratuko dira. Beherago bilaketak egiteko iragazkia dago. Betan *Bilatu* botoia sakatzen bada, enpresak stockean dituen ibilgailu guztiak aurkeztuko dira. Ordea, ibilgailu guztiak ikusi nahi ez badira hauek markaz, modeloaz, potentziaz, urtez, erregaiez, edota aldagailu motaz iragazi daitezke. Horretarako, iragazkiko menu hedagarrietan nahi diren datuak hautatu beharko dira.



Irudia 3 hasierako banner-a

Beherago enpresaren informazioa (4. irudia) aurkitu dezakegu, hala nola, eskaintzen dituzten zerbitzuak, telefonoa, enpresaren argazkiren bat, ordutegia...

ZERBITZUAK



BERMEA

Inolako ardurarik eduki ez dezazun gure ibilgailu guztiak 12 hilabeteko bermea daukate. Horrez gain, entregatzen ditugun ibilgailu guztiak aldezturik egiaztatzen dira.



FINANTZIAZIOA

Lecars-en zure neurrietara hobeto moldatzen den finantziazioa eskaintzen dizugu. Banku garrantzitsuenekin egiten dugu lan gustukoena duzun aukera hautatu dezazun.



IBILGAILU HAUTAKETA

Ibilgailu nazionalen eta inportatuen arteko aukerarik hoberena eskaintzen dizugu, gustukoena aukeratu dezazun. 20 urte baino gehiagoko esperientzia dugu sektorean.

Irudia 4 enpresaren zerbitzuak

2.2. Bilatu

15 ibilgailu aurkitu dira. Ordenatu

Modeloa	Prezioa	Urtea	Kilometroak	Motorra
BMW X6 xDrive30d 5p	62.000 €	2015	45.000 km	Diesel 258 CV
AUDI A3 Sportback 2.0 TDI 150cv Attraction 5p	19.900 €	2013	151.000 km	Diesel 150 CV
MITSUBISHI MONTERO SPORT 2.5 Tdi GLS Plus 5p	7.000 €	2007	160.000 km	Diesel 115 CV
VOLKSWAGEN EOS 2.0 TDI DPF 2p	10.800 €	2016	138.000 km	Diesel 140 CV
MERCEDES-BENZ CLASE S S 320 CDI 4MATIC 4p	22.000 €	2008	158.000 km	Diesel 235 CV
MERCEDES-BENZ CLASE A A 200 CDI BlueEFFICIENCY AMG Sport 5p	21.900 €	2012	136.000 km	Diesel 136 CV

Irudia 5 ibilgailuen zerrenda

Nabigazio panela edo iragazkiaren (6.irudia) bitartez orrialde honetara mugitzen bagara ibilgailuen zerrenda bat aurkitzen da 5. irudian ikusten den modukoa. Zerrenda hau hamarrekota multzoetan agertzen da eta multzoz aldatu nahi bada zerrendaren beko aldean dauden geziak edo zenbakiak erabili beharko dira. Zerrenda honetan ibilgailuekin elkar eragiteko bi aukera daude *Ikusi* eta *gogokoetara gehitu*.

KOTXEAK KAMIOIAK

Marka Prezioa Nondik Urtea Nondik Erregaia Potentzia Nondik

Modeloa Prezioa Nora Urtea Nora Aldagailua Potentzia Nora [Iragazkia garbitu](#)

BILATU

Irudia 6 aplikazioaren iragazkia

Lehenengo aukera sakatuz hautatutako ibilgailuaren informazio guztia eskaintzen duen orrialdera erakutsiko du aplikazioak, 7. irudikoaren antzekoa alegia. Orrialde honetan ibilgailuaren argazki guztiak ikusten dira baita honen informazio guztia ere prezioa, marka, modeloa, bertsioa, urtea, kilometroak, aldagailu mota, potentzia, ate kopurua, eserleku kopurua, kolorea erregai mota eta deskribapena.

MERCEDES-BENZ CLASE A**21.900 €****MERCEDES-BENZ CLASE A A 200 CDI**
BlueEFFICIENCY AMG Sport 5p

2012	136.000 km	Eskuzkoa	136 CV
5 Ate	5 Eserleku	Rojo	Diesel

Deskribapena

Irudia 7 ibilgailu baten zehaztasunak

Horrez gain, ibilgailuaren esteka Facebook eta Twitter-en partekatzeko aukera dago 8. irudian ikusten den moduan. Beherago enpresarekin posta elektronikoz kontaktuan jartzeko formulario bat dago. Bertan, izena, posta elektronikoa helbidea, gaia eta mezua (denak beharrezkoak) sartu behar dira eta zuzenean enpresari mezua bidaliko zaio posta elektronikoz bitartez. Formulario honen azpian enpresarekin, WhatsApp aplikazioaren bitartez, zuzenean kontaktuan jartzeko esteka dago. Hauen bien eskuman, finantzazioaren kuota kalkulatzeko formularioa dago. Hor ibilgailuaren prezioa, sarrera urteko interesa, bueltatzeko urte kopurua eta ordainketen maiztasuna zehaztu behar dira eta kuota kopurua eta hauen zenbatekoa eurotan itzuliko du pantailan.

Bigarren botoia sakatzen bada ibilgailua gogokoetara gehituko da erabiltzaileak izena eman badu, bestela errore mezu bat pantailaratuko da. Ibilgailua gogokoaren zerrendan bazegoen zerrendatik kenduko da.

Partekatu Tweet

Jarri gurekin kontaktuan

Mezua

BIDALI

Edo WhatsApp erbiliz

Kalkulatu finantziazioaren kuota

Ibilgailuaren balioa (€):	<input type="text" value="62000"/>
Sarrera (€):	<input type="text"/>
Urteko interesa (%):	<input type="text"/>
Urteak:	<input type="text"/>
Ordainketen maiztasuna:	<input type="text" value="Hilabetero"/>

KALKULATU

Ordainketa kopurua	0
Kuota	0 €

Irudia 8 kontaktuan jartzeko eta finantzazioa kalkulatzeko formularioak

2.3. Guri buruz

Orrialde honetan ikusi daitekeen lehenengo elementua mapa bata da (9.irudia). Betan enpresaren xedea non dagoen zehazten da txintxeta gorri baten bitartez. Txintxeta hau sakatzene bada eta gero *Nola heldu* botoia, leiho berri batean Google Maps web orrialdea irekiko da enpresaren helbidea helburu moduan duen ibilbidea topatzeko.



Irudia 9 xedea aurkitzeko mapa

Beherago enpresaren informazioa agertzen da (10. irudia): zerbitzuak, ordutegia, telefonoa, enpresaren laburpen txiki bat...

GURI BURUZ

GURE ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera : 10:00-13:30 | 16:00-20:30
Larunbata : 10:00 - 14:00
Domeka : Ibita

TELEFONOA

629 03 52 98




Lecars, erdiberriak eta bigarren eskuko kotxe eta kamioi nazionalak edota inportatuak saltzen dituen auto-kontzesionario bat da. Horrela, ibilgailu aukerarik hobereena lortzeko eta zure eskuetan jartzeko.

Lecars-en hogeit urte baino gehiago daramatzagu autoen munduan arituz eta gure esperientzia guztia prozesu osoan gure bezeroekin partekatu nahi dugu erosketa osoan aholkuak eskainiz. Beharrezkoa den informazio guztia ematen dizugu aukerarik hobereena hautatu dezazun.


Irudia 10 enpresaren informazioa

2.4. Erabiltzailea

Erabiltzailearen orrialdeak bi modu dauzka: erabiltzaileak izana eman badu edo ez. Lehenengo kasuan ikusten den bakarra modu lehenetsiko argazki eta izen bat eta Google-ren bitartez izena emateko botoia 11. irudian ikusten den moduan.




Erabiltzailea



Irudia 11 erabiltzailea izena ema aurretik


Botoi hori sakatzen bada Google-ren orrialdera egingo da berhelbiderapena betan erabiltzaile izena eta pasahitza sar daitezten. Behin erabiltzailea eta pasahitza ongi sartu direla Lecars-en aplikaziora bueltatuko da. Baina orain erabiltzailearen argazkia eta izena ikusiko dira 12. irudiaren antzera. Hauen ondoan saioa ixteko botoia aurkituko da. Erabiltzailea alde aurretik izena eman badu eta ibilgailuren bat gogokoetara gehitu badu, hauekin zerrenda bat ikusiko da.



aniton ojanguren


[SAIOA ITXI](#)


Hauek dira zure gustuko ibilgailuak:



19,900 €
AUDI A3 Sportback 2.0
TDI 150cv Attraction 5p


Diesel | 2013 | 151,000 km |
Eskuzkoa | 150 CV

 [IKUSI](#)



21,900 €
MERCEDES-BENZ CLASE A
A 200 CDI BlueEFFICIENCY
AMG Sport 5p

Diesel | 2012 | 136,000 km |
Eskuzkoa | 136 CV

 [IKUSI](#)

Irudia 12 erabiltzailea izena eman eta gero